

GIZABIDEARI BURUZKO ORDENANTZA, BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBITASUNA ETA HIRI PAISAIAREN BABESPENARI BURUZKO ORDENANTZA

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2004/09/22/e0408547.htm>

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

ZIOEN AZALPENA

Hiria eraikin, kale, parke eta plaza multzo hutsa baino gehiago ere da. Hiria herritarrek eurek osatzen dute, batez ere. Haiexek dute, erakundeekin zein eragile sozial eta ekonomikoekin batera, hiria eraikitzeko zeregin kolektiboa, elkarbizitza hobetzeko asmoz, gainera.

Hiria egiteko ardura partituak jokabide zibikorako jarraibide batzuk eskatzen ditu, herritarren askatasunari bide emanda, besteenganako begirunea muga bakarra dela, hiri eta natur ondarea eta ondasun publikoak zaintzeko zein herritar elkarbizitza armoniatsua bermatzeko.

Donostia gizarte kohesionatuagoko hiri garbia, zibikoa eta abegitsua bihurtzeko eta pertsonen eskubideak errespetatu ez ezik, ondarea, gune publikoak eta hiriko paisaia babesten dituen hiria egiteko helburuak donostiar eta bisitari guztien partaidetza eta konplizitatea eskatzen dituen hiri eredu bat eratzeko asmoa dakar berez.

Zibismoz jokatzea dugu donostiarron Donostiarenganako eta gainerako herritarrenganako konpromisoa. Gutxiengo baten jokabide hezigabeak denon ondare diren ondasun eta espazioei kalte egiteaz gain, elkarbizitzari eraso egiten diote, herritarren eskubide eta eginbeharrak betetzen dituzten donostiar gehien handi batenganako elkartasunik eta begirunerik gabeko jarrera ere erakusten du.

Baina, gainera, horren ondorioz milaka euro erabili behar izaten dira egunero-egunero garbitze eta artatze lanetan, dirutza hori beste zerbaitetan erabili beharrean. Gure hiriko gune publikoak eta ondarea errespetatzea jasangarritasuna hobetzea da, eta bidea ematen du aurrekontua, zentzuz, gauzarik beharrezkoenatarako erabiltzea, gainerako herritarrekin solidario izatea eta Donostia denon artean eraikitzeko proiektuan partaide izatea.

Zeregin horretan, jokabide hezigabeak isunen bitartez zuzentzea baino garrantzikoagoa da ikastetxeek, familiak, herritar mugimenduak eta donostiar guztiek parte hartzea paisaia babesteko zein hiria eta donostiar guztion zerbitzuan den ondarea errespetatzeko eginkizun kolektibo horretan.

Udalak, hiriko Gobernua buru, azken urteotan ahalegin handia egin du donostiarron bizi kalitatea hobetzen. Erdialdean eta auzoetan oinezkoentzako aldeak sortzea, hiri erdialdeko igaro bidezko trafikoa murriztea, parke eta plazak prestatzea, hirigintza oztopoak kentzea, pintadak etengabe kentzeko ahalegina, hiri altzariak berritzea, bide garbiketa, publizitate kartel handiak kendu izana, hondartzetako zerbitzuak hobetzea, eskultura berriak eta abar laguntzaile dira donostiarron bizi kalitatea igotzen.

Ardura etengabe horren beste aldean, halako etsipen moduko bat, maiz ikus daitekeelako hobekuntzak ez direla sendotzen espazio publikoak txarto erabiltzearen ondorioz berehala hondatzen direlako.

Gure hirian, beste askotan bezala, arazoak izaten ditugu pintadak, graffitiak, kartelak, etxeke animalien gorotzak, zorura zikinkeria botatzea, kontrolik gabeko publizitatea, kutsadura akustikoaren maila onargarriak gainditzen dituzten hainbat motozikleta eta jardueraren zaratsots gogaikarriak, bandalo jokabideak kalte eragindako hiri altzari eta haur jolastokiak, zabor edukiontziak txarto erabiltzea, isurketa ilegalak eta abar.

Donostiako Udalak, hirian elkarbizitza eta zibismo giroa ezartzeko nahian, honako ordenantza hau prestatu du, eta beste tresna bat izan nahi du donostiar herritar guztien bizi kalitateari kalte egiten dioten jarrera eta jokabide utzikieriazko eta arduragabeak zuzentzeko.

Horrela, ordenantza honen bitartez, batez ere, bide eta espazio publikoetan jokatzeko arau oinarritzko batzuk ezarri nahi ditu, pertsonen askatasuna baimentzeko, oinarriztat hartuta hiriko eta natur ondarea zein bizi garen ingurumena ahalik eta gehien errespetatzea eta zaintzea.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Honako ordenantza honek helburu du herritarrek bide publikoan duten jokabidea eta bideen txukuntasuna zaintzea, bide publikoan izaten diren erabilerak kontuan:

- Bide publikoaren erabilera arrunta.
- Bide publikoaren erabilera berezia.
- Bide publikoaren erabilera pribatiboa.
- Zerbitzu publikoen euskarri moduan erabiltzea.
- Obra publiko eta pribatuak egiteko euskarri nahitaezko moduan erabiltzea.

Halaber, ordenantza honek udalaren eraikuntza ordenantzak ere era osagarrian arautu nahi ditu, fatxada bide publikoari begira duten eraikin publiko eta pribatuen apaindurari dagokionez.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Honako ordenantza hau Donostiako udalerrri osoan egongo da indarrean.

3. artikulua. Bide publikoaren erabileraren gaineko hastapen orokorrak.

1. Hiriko bide, espazio, instalazio eta altzari publikoak herritar guztiok erabiltzekoak dira, ondasun horietako bakoitzaren ezaugarrien arabera, oinarriztat hartuta banako askatasuna eta beste pertsonenganako begirunea, biak behar bezala uztartu beharrekoak direla.

2. Bide publikoan gauzatzen diren jarduerak ezin murriz dezakete beste herritarren erabilera eskubidea, erabilera komun berezirako edo pribatiborako lizentzia edo emakida eduki ezean.

3. Donostiako Gobernu Batzarrak erabakiko du bide publikoan zein erabilera eta jarduera gauzatu daitekeen, baita bateragarri egingo ere, lehentasunak izendatuko dituela herri onura oinarri. Hartarako, eragozpenak edo bateraezintasunak sortzen dituzten jarduerak aldi baterako debekatuko edo murriztuko ditu.

4. Erabilera komun orokorrekin lehentasuna izango dute beste mota bateko erabilera aldean, nahiz eta beste horiek bateratzen eta bideragarri egiten ahalegindu, interes pribatuari eusteko ezinbestekoak badira eta herri onurari kalte handirik sortzen ez badiote.

4. artikulua. Kontzeptuen terminologia.

Ordenantza honetan honako kontzeptu eta adiera hauek erabiliko dira:

1. Bide publikoa: Ordenantza honen ondorioetarako, bide publikotzat jotzen dira kaleak, plazak, zirkulazio bideak, pasealekuak, hiribideak, espaloiak, bulebarrak, parkeak, lorategi aldeak, bide tunelak eta herritar guztiek erabili beharreko gainerako ondasun publikoak. Gainera, arau honen xedapenak aplikatuko dira hondartzetan, udalaren alde urbanizatu gabeetan eta udalak, udal erakunde autonomiadunek eta udalaren mendeko erakundeek gestionaturiko gainerako espazio publikoetan.

2. Altzari urbanoak: Izendapen horrek barne hartzen ditu zuhaitzak, jesarlekuak, zakarrontziak, jolastokiak, iturriak, farolak, seinaleak, zaborrontziak, estatuak, eskulturak, lore potoak, kioskoak, markesinak eta udalak bide publikoetan ezarritako gainerako elementuak.

3. Hondakinak: Hondakintzat jotzen da ezein substantzia, materia edo produktu baldin eta apirilaren 21eko 10/1998 Legearen Eranskineko kategoriaren batean jasotzen bada eta halakoaren jabeak hura botatzeko asmoa edo eginbeharra badu.

Etxe, denda, bulego eta zerbitzuetako hondakinak eta ezaugarriengatik edo osaeragatik etxeko hondakinen baliokidetzat jo daitezkeenak, hondakin urbanotzat joko dira.

4. Tresna arriskutsuak: Honako ordenantza honen arabera, tresna arriskutsutzat joko dira mozteko eta jotzeko balio dezaketen tresna guztiak, baldin eta beren ezaugarri eta nolakotasunengatik herritarren osotasun fisikoa murriztuz badezakete, baita lanbideetan edo kiroleetan ohiko diren tresnak ere, baldin eta eramaten badituzte erabilera eremu ohiz kanpoko egoeran edo denboran. Zerrenda orientagarri moduan, hona hemen horietako batzuk: Mailuak, borrak, beisbol bateak, borroka arteetan edo ukipen fisikoan kirolean erabiltzen diren tresnak, kateak, metalezko barrak, pioletak eta abar.

5. Eskekotasuna: Ordenantza honi dagokionez, eskekotasuntzat jotzen da bide publikoan eskean jardutea.

6. Plegu zortzirenak: Ezein propaganda inprimatu, kartela ez bada: Foiletoak, eranskailuak, hiru orrikoak eta abar.

7. Estabelzimendua: Aipatu ondorioetarako, establezimendutzat jotzen da aurretik udal lizentzia behar duen jarduera gauzatzeko lokala.

8. Obrak: Halakotzat joko dira eraitsi, urbanizatu, eraiki, birgaitu eta zaharberritzeko lanak, betelanak, lubakiak ebakitzea, kanalizazioak prestatzea eta antzekoak.

9. Kartelak: Izendapen horretan jasoko dira eraikin publiko eta pribatuetan, zuhaitz edo altzari publikoetan jartzeko moduko euskarrietan egindako propaganda: Paskinak, kartelak, pankartak, banderatzakoak eta abar.

10. Pintadak: Halakotzat joko dira bide publikoan, zoladuran, murru edo eraikin horman, edozein egitura elementutan edo altzari urbanoetan egindako eskuzko edo tresna bidezko idazketak. Altzari urbanoetako eta bide publikoetako kristaletan egindako marrazkiak ere barne daude.

5. artikulua. Lizentzia eta baimenak.

1.Udalaren obra lizentzietan eta ordenantza honek xedatutako baimenetan bermea eratzeko eska liteke ondare publikoaren txukuntasun eta apaindurarenganako eginbeharrei erantzuteko.

2.Azkenak beti emango dira epe jakin baterako eta epea amaitu baino lehengo ere indargabe utz daitezke.

II. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOEN IZENAK ETA ERROTULUA

6. artikulua. Bide publikoen izenak.

Bide publiko bakoitzak bere izendapena izango du, eta izendapena Donostiako Udalbatzarrak onartu beharko du.

7. artikulua. Bide publikoen errotulazioa.

1.Bide publikoen errotulazioa ondasun publikoa da, eta plaka, zutoien edo antzekoren bat erabilia gauzatuko da, eta bide publiko bakoitzaren sarreran eta irteeran, gutxienez, kokatuko dira. Plazetan, eraikinik ikusgarrienean eta sarbide nagusietan jarriko dira errotuluak.

2.Errotuluak eraikin pribatuetako fatxadetan jar litezke, eta jabeek jartzea ezinbestean onartu beharko dute.

I. TITULUA

HERRITARREK NOLA JOKATU BIDE PUBLIKOAN

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

8. artikulua. Bide publikorako jokabide arau orokorrak.

1.Herritarrek eskubide dute hiriko bide eta gune publikoak aske erabiltzea, eta askatasun hori errespetatu behar diote. Eskubide hori zibismoz erabili behar dute, eta mugatzat ditu ondasun publikoen erabileraren gaineko xedapenak eta beste pertsonak zein ondasun publikoak errespetatu beharra.

2. Inork ezin du, bide publikoan duen jokabidea dela bide, beste pertsonen eskubideak edo jarduteko askatasuna gutxietsi, ezta denok onartu ohi dituzten konbikzioak edo elkarbizitza arauak ofenditu.

* 2010eko ekainaren 25eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 8.2. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2010/12/16/e1014263.htm>

3.Ezin da herritarren atsedenaldea eragozten duen zaratarik sortu, ezta gaez zarataka jardun edo aisialdi lokaletatik iskanbila sortuta irten ere.

4.Motordun ibilgailuek ateratako zaratari dagokionez, batez ere ziklomotor eta motozikletena, 2000.eko urriaren 3an onartutako Ordenantzak araututakoa bete beharko da, alorreko arau hauste eta isunak barne.

5.Herritarrek ez dute bide publikoan ekintza abusuzko, nahierarako edo diskriminatzailerik egin behar, ezta bortxa fisiko edo moralik dakarrenik ere.

9. artikulua. Elkartasuna bide publikoan.

1.Udalak herritarra akuilatuko du bide publikoan elkartasunezko jokabide erakustera, ibiltzeko edo orientatzeko laguntza behar duen lagunari, istripua izandakoari edo halako

arrisku egokiera bereziren batean dagoenari laguntzeko. Sustatu egingo du, bestalde, ibiltzerakoan edo altzari urbanoak erabiltzerakoan pertsona behartuenei lehentasuna ematea, baita elkartasun eta heziera oneko bestelako jarrerak ere.

2.Ume edo minusbaliatu galdurik zein arazo fisiko edo psikiko nabarmen bat duen pertsonarik aurkituz gero, herritarra behartuta egongo da poliziari esatera, haiek ardura daitezen pertsona hori babesteaz eta zaintzaile arduradunengana eramateaz.

10. artikulua. Nola erabili ondasun publikoak.

Ondasun publikoak beren ezaugarrien arabera erabili behar dira, behar bezala eta gainerako herritarren erabilera eskubidea beti ere errespetatuta.

11. artikulua. Udal agintaritzaren agenteen eta zerbitzuen jokabidea.

1.Agintaritzaren agenteek eta udal zerbitzuetako kideek noiznahi tratatuko dituzte herritarrak kortesiaz eta zuzentasunez, baita laguntza eta babesa eman ere. Jokatzerakoan beti emango dizkiote herritarrari ekintzen zioen eta helburuen gaineko azalpenak.

2.Agintaritzaren agenteek aginduak eta jarraibideak eman diezazkiokete herritarrari honako ordenantza honetako xedapenak betetzea bermatzeko asmoz.

3.Agintaritzaren pertsonen gaineko aginmena erabili behar denean, gertaera larrietan eta

1. atalaren arabera jokatuta, ezinbestekoak diren ekintzak baino ez dira erabiliko, eragindako lagunen duintasuna guztiz errespetatuta.

II. KAPITULUA. JOKABIDE ZIBIKOA

12. artikulua. Altzari urbanoak eta espazio publikoak babestea.

1.Herritar guztiek hiriko altzari urbanoak ondo erabili behar dituzte, haiek errespetatuta eta artapen zein erabilera arruntak ez galarazteko moduko kalterik ez egiteko moduan usatuta.

2.Debekatuta daude altzari urbanoak zatartu, zikindu edo hondatzen dituzten edo halakoak sortzeko moduko ekintza guztiak, batez ere honako hauek:

a)Jarlekuak erabilera arruntez bestela erabiltzea, beraz, galarazita egongo da zapaltzea, kokalekuetatik kentzea, apurtzea, zikintzea eta, oro har, erabilera edo artapen egoera honda dezakeen edozer.

b)Debekatuta dago jolastokiak halakoak hondatu edo suntsitzeko moduan erabiltzea, baita nagusiek edo joko bakoitzerako adierazitako adinetik gorako umeek haur jolastokiak erabiltzea. Joko bakoitzak plaka bat izango du, haietako bakoitza erabiltzeko adinik egokiena adierazita.

c)Debekatuta dago zaborrik, txiklerik edo paperik botatzea zakarrontzietatik kanpo.

d)Galarazita dago zakarrontziak iraultzea edo errotik ateratzea, baita halakoen itxurari kalte egiten diotenak ere.

e)Debekaturik dago zakarrontzietara eta hondakin urbanoetarako edukiontzietara tresna edo gauza arriskutsuak botatzea.

Hartara, tresna edo gauza arriskutsutzat joko dira lagunei kalte egin diezaiketenak: Animaliak, animalien gorpuzkinak, xiringak, estupefazianteak kontsumitzeko tresnak, gaixotasunak kutsatu edo zabaldu ditzaketen osasun atentzioko materialak, droga toxikoak, estupefazianteak, produktu kimikoak, erradioaktiboak, piroteknikoak edo leherkariak.

f)Debekaturik dago iturri publikoetako hodiak, txorrotak eta beste osagaiak erabilera arruntetik at erabiltzea.

Debekaturik dago apaindurazko iturriak zikintzea, horietako ura garbitu, bainatu edo plisti-plasta ibiltzeko erabiltzea, baita edozein detergente, koloratzaile edo produktu kimikorik botatzea ere.

g)Debekaturik dago zuhaitzak, farolak, estatuak, seinaleak eta hiriko bestelako apaingarriak gora igortzeko, kulunkatzeko edo beste edozertarako erabiltzea, baita halakoak hondatzeko moduko ekintzarik egitea ere.

h)Debekaturik dago bide publikoan sua piztea edo produktu piroteknikoak erabiltzea udalaren eta beste administrazio eskudunen baimenik gabe. San Joan bezperako suek eta antzekoek udal baimena beharko dute.

i)Debekaturik dago animaliek bide publikoan gizakiontzako jarritako iturrietan edatea.

j)Galarazita dago iturri, urmael edo bide publikora usain gogaikarria sortzen duenik botatzea.

13. artikulua. Debeku bereziak.

1.Debekaturik dago bide publikoan ezein kirol edo aisialdi ekintzetan jardutea baldin eta pertsoneri edo ondasuneri kalterik edo eragozpenik egin diezaieketen gauzak edo tresnak erabiltzen badira, hartarako baimenduriko leku eta ordutegietan izan ezik. Plazetan berariaz adieraziko da non ibil daitekeen jolasean, modurik egonez gero.

Orientabide moduan, beraz, debekaturik dago hartarako izendaturiko instalazio eta lekuetatik kanpo pilotak, baloiak, monopatinak, disko hegalaria, boomeranga edo bestelako tresnarik erabiltzea pertsonak etengabe mendean ez badauka.

2.Debekaturik dago bide publikoan petardoak, bengalak edo jaurtikitzeko ezein tresnarik (arkuak, zerbatanak, tiragomak, bola pistolak) erabiltzea.

3.Galarazita dago motozikletak eta ziklomotorrak oinezkoen plazetatik zirkulatzea.

4. Hondartzan ez beste toki guztietan, hondartzetako arauak bete beharko baitira haietan, galarazita dago bide publikoetan pertsonak biluzik egotea eta ibiltzea.

* 2010eko ekainaren 25eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 13. artikuluari 4. puntua gehitu zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2010/12/16/e1014263.htm>

14. artikulua.Parke eta lorategi publikoak.

1.Herritarrek nahitaezkoa dute hiriko parke eta lorategi publikoak errespetatzea.

2.Parke, lorategi eta lorontzietako landareak eta bide publikoetako zuhaitzak behar bezala zaintzeko, debekaturik daude honako hauek:

a)Landareak lapurtzea.

b)Belarra hondatzea, belarretan kanpatzea, berariaz baimenduta parkeetako guneetan izan ezik.

c)Zuhaitzak moztea, bakantzea edo apurtzea, baita plaza, parke eta lorategietan motorrak eta ziklomotorrak erabiltzea ere.

d)Zuhaitz azalean grabatzea, iltzeak jostea, eskailerak, tresnak, aldamiio euskarriak, kartelak edo beste ezer jartzea, baita zuhaitzetara igotzea ere.

e)Aldi baterako baino ez bada ere, obra materialak jartzeaz uhaitzen kontra edo haien gainera ezein produktu toxiko botatzea.

f)Landare aldeetara zaborrak, hondakinak, harriak, graba edo beste ezein produktu botatzea baldin eta halakoei kaltea egin badiezaieke edo estetika eta erabilera onak zapuzten baditu.

g)Kaka uztea belarretan eta lorategietan.

h)Parke eta lorategietan sua piztea.

3.Halaber, debekaturik dago ordutegi arautuko parkeetan gelditzea itxiera ordutik aurrera.

15. artikulua. Drogak eta edari alkoholikoak kontsumitzea. Taldean edatea. Armak eta tresna arriskutsuak.

1.Drogak eta edari alkoholdunak kontsumitzea eta armak edo tresna arriskutsuak eramatea edo erabiltzea alorrean alorreko indarreko arauen arabera izango da.

2.Udaltzaingoak bertan dekomisatuko ditu drogak, substantzia sorgogorriak, psikotropikoak eta armak zein tresna arriskutsuak.

3.Tabakoari dagokionez, erabat galarazita dago udal esparru guztietan erretzea, salbuespen direla agerikoak edo erretzaileentzat egokituriko esparruak. Erretzeko esparru berezirik xedatu ezean, udal egoitzetan ez da erretzerik egongo.

4.Taldean edatea debekaturik dago baldin eta ekintza horrek beste herritarrei espazio publikoak erabiltzea oztopatzen badie.

16. artikulua. Eskean jardutea.

1.Eragotzita dago adingabeek udalerrian eskean jardutea, beraz, adinez txikiak babestearen gaineko indarreko legeen xedapenak bete beharko dira.

2.Galarazita dago dirua edo limosna eskatzea herritarra behartuta, beldurtuta edo hitzez ala ekintzez gogaitarazita. Gainera, debekaturik dago gauzka edo zerbitzuak diru truk eskaintzea beharkizuna, beldurra edo jokabide gogaikarria erabilita.

3.Agintaritzaren agenteek behartuari adieraziko diote non diren udalaren edo beste erakunde batzuetako gizarte zerbitzuak, behar dituen sorospena eta laguntza eskatu ahal izateko.

4.Udal zerbitzu sozialek babesa emango diete bere egoeragatik lo egiteko aterpetxerik ez dutenei, batez ere neguan.

16. artikulua, bis.Salmenta ibiltaria.

Debekaturik dago bide publikoan edo establezimenduetan saltzaile ibiltariek ezer saltzea udal baimenik eduki gabe.

II. TITULUA

BIDE PUBLIKOAREN TXUKUNTASUNA

I. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA ERABILERA ARRUNTAREN ONDORIOZ GARBITU BEHARRA

I. ATALA. Bide publikoa herritarren erabilera ohikoaren ondorioz garbitu beharra

17. artikulua. Udalaren eginbeharra.

Udal zerbitzuen ardura da hiriko espazio publikoak txukuntasun eta osasun baldintzetan izatea. Hori dela eta, Udalak behar bezain maiz beteko du zerbitzu publiko egokia, eta dagozkion jagon eta polizi eskumenak erabiliko ditu.

18. artikulua. Herritarren eginbehar eta lankidetzak.

- 1.Herritar guztiak behartuta daude hiria eta, batez ere, gune publikoak txukun edukitzera.
- 2.Elurrik eginez gero, hiriko finka publiko zein pribatuen jabeek espaloietako elurra eta izotza garbitzen lagundu beharko dute fatxadaren besteko luzeran eta, gutxienez, 1,50 m metroko zabaleran, espaloia estuagoa ez bada, elurra espali ertzean jarrita, zuhaitzei kalterik egin gabe eta hustubide zein estoldak oztopatu gabe.
- 3.Udal zerbitzuak eta udaltzainak noiznahi arduratuko dira herritarrek garbitasun alorreko eginbeharrak behar bezala konplitzeaz, eragin duten afekzioa konpontzeko eskatuko dietela, baita arauzko salaketa jarri ere.

19. artikulua. Debeku bereziak.

1.Debekaturik dago bide publikoa zikindu dezakeen ezer egitea, eta, batez ere, ondoko hauek daude galarazita:

—Ibilgailuak bide publikoan garbitzea.

—Bide publikoan kaka, txiza eta tu egitea.

—Hondakin urbanoak eta zaborrak eskukatzea edo aukeratzea, horiek zabalduta, bilketa oztopatuta edo ontzikiak aldatuta.

—Bide publikora botatzea edo hartan uztea edozein hondakin, zabor edo orri zortziren.

2.Orri zortzirenak botaz gero, udal zerbitzuek banaketak erasandako espazio urbanoa txukunduko dute, eta arduradunei zerbitzu ohiz kanpoko horien kostua ordaintzeko eskatuko diete, legeek xedaturiko isunak jartzeaz gain.

3.Lorontziak eta landareak ureztatu eta bide publikora edo pertsonen joan-etorria duten barruko patioetara jotzen duten balkoi, begiratoki edo leihoetan tapizak astinduko dira 23:00etatik 09:00ak arte. Inori kalterik edo eragozpenik ez sortzeko moduan jokatuko da bi ekintza mota horiek gauzatzerakoan.

4.Batez ere debekaturik dago animalien gorpuak lagatzea.

20. artikulua. Hondakinak non utzi.

1.Hondakinak Udalak adierazitako tokietan utzi beharko dira, hondakin urbanoak jasotzearen gaineko udal Ordenantzak xedaturiko moduan eta ordutegietan.

2.Debekaturik dago zabor poltsetan eta bide publikoetako edukiontzietan arakatzea eta haietatik hondakinak hartzea, baita obra hondarrak jasotzekoetatik ere.

21. artikulua. Nola erabili zakarrontziak.

1.Hondakin solido txikiak (zigarrokin itzaliak, fruta azalak, txikleak, paperak, poltsak, biltzekoak eta antzekoak) zakarrontzietan utzi beharko dira, baina material birziklagarriak izanez gero, bide publikoan jarritako gaikako edukiontzia erabili beharko dira.

2.Debekaturik dago zakarrontzietan ordenantzako honetako 12.2.c) artikuluan zerrendaturiko gauzak, baita hondakin solido izekiak eta piztuta dagoen beste edozer.

II. ATALA. Jarduera komertzial eta industrialen ondorioz garbitu behar izatea

22. artikulua. Ingurua txukuntzea.

Merkataritza edo industri jardueraren batek inguruetan edo baimenduriko espazioetan (adibidez, terrazan) zikinkeria sortzen badu, establezimenduaren arduradunak erasandako bide publikoaren zati hori txukundu beharko du, baita emandako lizentziari aplikatu beharreko araubidearen ondoriozko obligazioak eta zuzentze neurriak abiarazi ere.

23. artikulua. Erakusleihoak.

Erakusleihoak, establezimenduak, salmenta guneak eta antzekoak garbituko dira bide publikoa zikindu gabe, oinezkoei eragozpenik ez sortzeko moduko ordutegietan.

24. artikulua. Olanak eta pertsianak.

Behe solairuetako lokalen olanek eta pertsianek txukun egon beharko dute, eta kanpoko itxurak hala eskatzen duenean, berriez ordezkaturiko dira.

25. artikulua. Errotulu, plaka eta gainerako ezaugarriak.

Bide publikoan errotulu, plaka eta ezaugarriak jartzeko, udal lizentzia eskatu behar da. Txukun egon behar dute, baita hondatuak ordezkatu ere.

26. artikulua. Saltzeko makina automatikoak. Erakustokiak eta bestelako osagaiak.

1. Debekaturik dago kontsumo produktuak saltzeko makinak jartzea baldin eta produktuak zuzenean bide publikoan banatzen badituzte udal baimenik izan gabe.

2. Debekaturik dago bide publikoa erakustokiekin edo beste ezein instalazio edo elementurekin okupatzea arauzko udal lizentziarik eduki gabe.

26. artikulua. Isurtzea.

Ibilgailuek zama ontziratu gabe eramanez gero, bide publikora ezer ez isurtzeko moduan zamatuta eta horniturik joango dira.

28. artikulua. Zamalanak.

1. Edozein ibilgailu kargatu edo deskargatzeko lanetan, bidea eta espaloia garbituko dituzte lanok amaitu bezain laster.

2. Garbitu beharra ibilgailuen jabeak edo, haren ordezkari, zamalanen erantzule den establezimenduaren edo finkaren jabeak izango du.

III. ATALA. Animaliak eraman edo edukitzearen ondorioz garbitu beharra

29. artikulua. Animalien eramanaren tratua. Gorotzak.

1. Herritarrek behar bezala artatu beharko dituzte etxeko animaliak eta, batez ere, debekaturik dago haiek abandonatzea.

2. Debekaturik dago txakurrek eta bestelako animaliek kaka egitea haur jolastokietan, pasealekuetan, lorategietan edo bide publikoaren beste edozein lekutan. Horiek daramatzaten lagunek galarazi beharko diete bide publikoan kaka egitea. Hartarako, animalia estolda isurbiderik hurbilenera eramango dut edo, halakorik balego, hartarako prestatutako tokiren batera.

3. Gorotza bide publikoan uztea galarazterik izan ez badu, animalia jabeak edo arduradunak bertatik bertara ekingo dio jasotzeari. Hala ez egitearen erantzule izango da animalia jabea eta, haren ordezkari, animaliarekin doan laguna. Haietako bat ere agertu ezean, udal zerbitzu eskudunak animalia eramango du.

30. artikulua. Animaliak eramatea.

1. Abereek ezin izango dute lorategia eta parterreetan libre sartu. Hala ere, lokarriarekin eta lepokoarekin behar bezala kontrolatu eta eramanez gero, izango dute parke eta lorategi publikoetan ibiltzeko modua. Ez hala Kristinaenea, Aiete eta Miramar parke historikoetan. Izan ere, haietatik pasatu besterik ezin izango dute egin. Toki hauetatik, zehazki:

Kristinaenea parkean, Mikel Laboa eta Glasys del Estal zaldainen bitarteko zatitik, eta haien eta Mandasko Dukearen pasealekuko parkeko sarreraren artetik.

Aieteko parkean, Borroto kaleko sarreraren, Morlans pasealekuko sarreraren eta Aiete pasealekuan Munto inguruan den sarreraren arteko tartetik.

Miramar parkean, Mirakontxa pasealekuko sarreraren eta Matia kaleko sarreraren arteko tartetik.

* 2014ko irailaren 25eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 30.1. artikulua aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/10/23/c1409433.htm>

2. *Salbuespen gisa, arriskutsu izan daitekeen animaliatzat sailkatuta ez izan eta inori erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez dute txakurrek, Miramon, Lau Haizeta, Otxoki, Ametzagaina eta Uliako hiri inguruko parkeetan libre ibiltzeko modua izango dute, 18:00etatik 12:00etara.*

Era berean, arriskutsu izan daitekeen animaliatzat sailkatuta ez izan eta inori erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez duten txakurrek, Urgullgo parkean ere izango dute libre ibiltzeko modua, 18:00etatik 12:00etara neguan eta 19:00etatik 10:00etara udan. Eta beste toki hauetan denetan ere 20:00etatik 10:00etara libre ibiltzeko modua izango dute txakur horiek (toki hauetan eta lehen esandakoetan, txakurrek beren jabeekin ibili behar dute beti):

— ***Antiguan:***

Ondarreta pasealekuaren eta Igeldo pasealekuaren artean diren gune irekietan (unibertsitate ingurua) eta Mikeleteen pasealekuak, Pio Baroja pasealekuak, Jauregi eta Isturin kaleak, Ibaetako parkeak eta Zapatari plazak eratutako gune irekian.

— ***Aieten:***

Damazelai parkea eta Katalina Eleizegi kaleak, Izostegik, Errondo gainak, Merkezabalek eta Puiok (Puio mendiak) eratutako gune irekian.

— ***Amaran:***

Zorroaga gainak eta Begiristain Doktoarearen pasealekuak artean eratutako gune irekietan, Amaiur parkean eta haren aurreko lorategi gunean (Oroimenaren lorategian ez bestean).

— ***Loiolako Erriberan:***

Loiolako Erribera pasealekuan.

— ***Loiolan:***

Hondarzaleen pasealekua.

— ***Txominenean:***

Kristobaldegi bidean (komentuaren ingurua).

— **Martutenen:**

Okendotegi bidearen inguruko gune irekietan (Urumea ibaiaren eta GI 131 bidearen artean).

— **Intxaurrondon:**

Txaparrene pasealekuan, Zubiaurre pasealekuan eta Mons pasealekuaren eta Fernando Sasiainen kalearen arteko lorategi inguruan (autobusen garaje inguruan).

— **Herreran:**

Arrobin.

— **Bidebietan:**

Herri Ametsarako igoeran Salvador Allende parkean.

— **Grosen:**

Manteon.

— **Egian:**

Matigoxotegin.

— **Erdialdean:**

Urumea pasealekuan eta Frantzia pasealekuan (ibaiaren ondoan).

— **Alde Zaharrea:**

Pasealeku Berrian.

— **Altzan:**

Arria parkeko goiko aldeko ipar-ekialdeko belardi lorategian.

3. Bainu denboralditik kanpo, arriskutsu izan daitekeen animaliatzat sailkatua ez izan eta erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez duten txakurrak, lotu gabe ibili daitezke, beti ere jabea lagun dutela, Donostiako Zurriola, Concha eta Ondarreta hondartzetan. Inoiz ere ezingo da Santa Clara uhartera joan etxe aberearekin, edozein espezietakoa dela ere.

* 2015eko urtarrilaren 29ko akordioaren ondorioz, 30.3. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2015/02/05/e1500911.htm>

* 2012ko martxoaren 28ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 30. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2012/06/13/e1205438.htm>

* 2016ko Irailaren 29ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, berriro 30. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2016/10/17/e1607070.htm>

II. KAPITULUA. ERABILERA KOMUN BEREZIAREN, PRIBATIBOAREN ETA EKITALDI PUBLIKOEN ONDORIOZ GARBITU BEHARRA

31. artikulua. Erabilera bereziak edo pribatiboak erasandako aldea garbitzea.

1. Erabilera arrunt bereziak eta pribatiboak bide publikoan eragindako zikinkeriarren erantzule izango dira hartarako baimenduriko pertsona fisiko edo juridikoak edo erabilera emakidadunak.

2. Establezimendu eta terraza finkoen edo denboraldikoen jabeak (edaritegiak, kafetegiak, kioskoak, saltokika eta abar) behatuta egongo dira instalazioak berak eta erasandako espazio urbanoa txukuntasun baldintza egokietan zaintzera.

3. Udalak exijitzea du halakoek sortzen dituzten hondakinak bildu eta gordetzeko ontzi homologatuak jartzeko, baita ontzi horiek garbitzeko ere.

4. Saltzaile ibiltarien asteen behingo azokako saltzaileek, saltzen amaitu ondoren, txukun- txukun utzi beharko dute okupaturiko aldea. Beste horrenbeste egin behar dute Bretxa ondoko esparruan egunero bertako produktuak saltzen dituzten baserritarrek.

5. Ostalaritzako establezimenduek darabiltzaten terraza iraunkor eta denboraldikoak eta horietako altzariak lokalaren arduradunek garbitu beharko dituzte establezimendua itxi eta, gehienez ere, ordu betean, nahiz eta egun osoan aldian-aldian eskobatu eta txukundu beharko dituzten, garbitasun eta higiene egoera onetan iraunarazteko.

32. artikulua. Ekintza publikoak.

1. Jabari publikoaren espazioetan egindako ekintzen antolatzaile pribatuak izango dira ekintzan sortzen zikinkeriarren arduradunak.

2. Hiria garbitu ahal izanez gero, antolatzaileek nahita ez adierazi beharko diote Udalari ekintza publikoak zein lekutan, ibilbidetatik eta ordutan gauzatuko den. Udalak bermea gordailuan uzteko eska dezake sor daitezkeen garbitu behar bereziak ordaintzeko. Erasandako espazio publikoa txukun- txukun egonez gero, bermea atzera jasoko dute. Bestela, ohiz kanpoko garbitu lanen kostua kenduko da bermetik.

3. Partaide ugari elkartzen dituzten ekitaldi publikoetan, edaritegiak, txosnak edo janaria eta edariak kontsumitzeko antzeko instalazioak jarriz gero, denok erabili ahal izateko komunak jarriko dira. Bestela, antolatzaileek komun eramangarri homologatuak jarriko dituzte, udal zerbitzu teknikoek adierazitako kantitatean eta kokalekuan.

4. Horrelako establezimenduak bide publikoan aldi baterako jartzen direnean, gainera, aplikatu beharreko neurri higieniko-sanitarioak bete beharko dituzte, ur hartunea eta saneamendu sarerako hustubideak, baita hondakinak gaika bildu ahal izateko neurriak hartu ere, gerokoan birziklatu hala izateko moduan.

33. artikulua. Animaliekiko jaiak.

Ekintzetan edo jaietan animaliak egoten badira, antolatzaileak halakoek sortutako zikinkeria kendu beharko dute ekintza amaitu eta animaliak eramateaz batera.

34. artikulua. Kanpatzea.

1. Ezingo da kanpatu, kanpadendarik edo kanpatzeko prestaturiko ibilgailurik jarri hartarako baimenik ez duten gune publiko eta pribatuetan. Bide publikoan ezin da kuzinatu edo aulkiak eta mahaiak zabaldu.

2. Agintaritzaren agenteek kanpadenda, ibilgailu edo bide publikoa arauz kanpo okupatzen duen edozein materialaren ekintza bertan behera uzteko, arauzko salaketa abiaraz dezaketela ere. Uko eginez gero edo jabeak edo erabiltzaileak aurkitzerik ez balego, agintaritzaren agenteek haiek berehala kentzeko baliabideak erabil ditzakete, jabeei kentzeko gastuak ordaintzeko eskatuko zaiela.

III. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA LANEN ONDORIOZ GARBITU BEHARRA

35. artikulua. Neurriak hartu beharra.

1. Jarduera eta obra guztiek jabea behartzen dute, lizentzien ondoriozko egin beharrak betetzeaz gain, bide publikoa ez zikintzeko neurriak hartzera, baita erasandako aldea sarri garbitzera eta hondakinak kentzera ere.
2. Donostiako Gobernu Batzarra arduradunari garbituak egiteko eska diezaioke.
3. Eraikitzen, birgaitzen, zaharberitzen edo eraisten ar idiren eraikinak izanez gero, obra kontratistak garbitu beharko du obrek eragindako bide publikoaren zatia.

36. artikulua. Obra babestea.

1. Zikinkeriarik sor ez dadin, bide publikoan eraginda duten lanak edo obrak egiten dituztenek lantokiaren inguruko bide publikoa babestu beharko dute inguruan babes egokiak jarrita, lurra eta hondakinak zabaldu ez daitezen baimenduriko aldetik kanpora.
2. Debekaturik dago obrak mugatzen ez duen bide publikoan lurra, harea, graba eta bestelako materialak edo edukiontzi, indusketa eta bestelako eraikuntzako gailu mekaniko laguntzaileak jartzea, udalak obra lizentzian berariaz baimenik ez badu, eta espazioak beti egon behar du garbi.
3. Eguneko lan jarduna amaituta, bide publikoan egindako lubaki, bideratze lan eta bestelako lantokiak behar bezain babesturik eta seinalez horniturik, istripurik gerta ez dadin, gauez balizatzeko elementuak barne.

37. artikulua. Garbitzeko plataforma.

1. Obra esparruan plataforma bat jarri beharko dute galtzada zikin dezaketan ibilgailuetako gurpilak eta beste elementuak garbitzeko bide publikora irten aurretik.
2. Xedapen hori ez betetzeak, isuna ez ezik, udaltzainaren debekua ere eragingo du, hain zuzen ere, obra ibilgailu horiek bide publikora irteteko.

38. artikulua. Hormigoia kamioiak.

1. Debekaturik dago hormigoia hormigoia kamioian eramatea deskarga ahoa estalita ez badao hormigoia bide publikora erortzea galarazteko dispositiborik gabe.
2. Hormigoia kamioiak ezin dira garbitu ez bide publikoan ez hartarako egoki den beste edonon.
3. Aurreko bi atalak ez betetzeko erantzukizuna ibilgailuaren jabearena eta gidariarena izango da, eta haien ordean obra sustatzailea edo zerbitzuz hornitzen duten jardueraren titularra; behartuta egongo dira isuritako hormigoia eta bide publikoa garbitzera, baita ezarriko zaizkion isunak ordaintzera ere.

39. artikulua. Lurra eta hondakinak.

1. Lurra eta hondakinak garraiatzeko ibilgailuek edukia bide publikora isurtzea galarazteko baldintzak bete beharko dituzte.
2. Lurraren eta hondakinen garraiatzaileek nahitaez garbitu beharko dute erasandako bide zatia zikindu bezain laster, baldin eta bide publikoa zamalanetan edo garraiatzerakoan zikintzen badute.
3. Udal agintaritzak eskatzen dien unean nahitaez kendu beharko dituzte baimendu gabeko lekuetara isuritako lurra eta hondakinak, baita ezartzen zaien isuna ordaindu ere.

40. artikulua. Obra edukiontziak.

1. Debekaturik dago bide publikora botatzea edo bertan lagata uztea edozein obra hondakin, baita hondakin solido urbanoetarako edukiontzietara botatzea ere.

2. Obra hondakinak Udalak baimenduriko obra edukiontzietara sartu beharko dituzte. Edukiontziok bete beharko dituzte bide publikoaren edukiontzi bidezko erabilera berezia arautzeko udal Ordenantzako eskakizunak.

3. Bete ondoren, obra edukiontziak era egokian estali beharko dira, hondakinak kanpora eror ez daitezzen.

4. Gainera, nahitaez estali beharko dituzte edukiontziak lan ordutegia amaitutakoan.

III. TITULUA

ERAIKINAK KANPOTIK GARBITZEA

I. KAPITULUA. ERAIKIN PUBLIKO ETA PRIBATUEN KANPOALDEA ZEIN HIRIKO PAISAIA GARBITZEA

41. artikulua. Eraikinen kanpoko elementu eta aldeak garbitzea eta zaintzea.

1. Eraikin jabeak eta establezimendu titularrak behartuta daude halakoak garbitasun publikoaren baldintza egokietan edukitzera. Fatxadak, errotulu, tarteko hormak, sarrerak, sartzeko eskailerak eta, orokorrean, bide publikotik ikus daitezkeen elementu arkitektoniko eta erantsiak garbitu, zaharberitu edo iztukatu behar dituzte, fatxada bakoitzaren ezaugarrien arabera, halakoen zikinkeria nabarmena bada edo Udalak hala agintzen badu udal zerbitzuek txostena egin ondoren.

2. Balkoietako barandak, toldoetako burdinak eta gainerako elementu metalezkoak herdoilik gabe eduki beharko dira, eta Udalak eskatzen duenean pintatu eta konpondu beharko dituzte.

42. artikulua. Publizitatea.

1. Kanpoko publizitatea, edozein euskarritan eta dena dela halakoaren helburua edo ezaugarriak, hartarako berariaz prestatutako lekuetan baino ezingo da ezarri, alor horretako arau bereziak beteta.

2. Horiek horrela, Udalaren baimena eduki ezean, debekaturik dago ezein iragarki jartzea eraikin publiko eta pribatuetako fatxadetan, arkupeetan, markesinetan, hiriko altzarietan, zuhaitzetan, murruetan, tuneletan eta lurpeko igarobideetan. Hala ere, Publizitate hesiak nola instalatu arautzeko Ordenantzak hartarako bereziki ezarritako lekuetan, publizitate-elementua jartzeko nahikoa izango da aldez aurretik jakinaraztea, beti ere publizitatea ez badago bermatuta edo jasota egiturazko euskarri baten gainean. Era berean, galarazita dago aipatu lekuetan edozein eranskailu, kartel, paskin, pankarta edo banderatxo ?politikoak edo bestelakoak? jartzea, honako ordenantza honetako 43.1 artikulua araututako salbuespenak kontuan.

Aipatutako kasuetan, kartelak eta bestelako publizitate-elementuak jartzeko aldez aurretiko jakinarazpena egiten denean, honakoak adierazi beharko dira:

- Publizitate-elementuak jarri behar dituzten pertsona fisiko edo juridikoak identifikatzeko datuak.
- Publizitate-elementuen neurriak eta edukia.
- Publizitate-elementua jarri nahi den tokia.
- Zenbat denboran egongo den jarrita publizitate-elementua.

* 2010eko Urriaren 1eko akordioaren ondorioz, 42.2. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/01/13/e1100098.htm>

3. Postontzietan propaganda edo publizitate komertziala jaso nahi ez duten jabeen elkarteei Udalak hala adierazten duen kartel bat emango die, eraikin sarrerako atarian jar dezaten.

43. artikulua. Kartel eta banderatzokak.

1. Publizitate kartelak jartzea arautzeko ordenantzan adierazitako obrako hesi eta gainerako tokietan ez eze kalean ere kartel edo banderatzokaren bat jarri nahi bada, Udalaren baimena lortu beharko da honako hauetako bat izanez gero:

a) Hirian esangura bereziko kultur, arte edo kirol gertaerarik egin beharra.

b) Hiriri onura dakarkioten kontzertu, ekintza edo erakusketak egiten laguntzen dutenean.

c) Hauteskunde kanpainenetan, hartarako baimenduriko lekuetan.

Salbuespen gisa, bide publikoan kartelak eta banderatzokak jartzeko baimena eman liteke aipatutakoez bestelako egokieretan.

2. Udalak orokorrean arautuko du, dagokion ordenantzan, zein baldintzatan erabil daitezkeen publizitatea jartzeko lekuak eta baimena lortzeko zein izapide bete behar den. Nolanahi ere den, zehaztutakoak ezingo dira inoiz erabili kartelak edo banderatzokak jartzeko edo zintzilikatzen.

* 2010eko Urriaren 1eko akordioaren ondorioz, 43.2. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2011/01/13/e1100098.htm>

3. Artikulu honek aipaturiko baimen eskabideak, gutxienez, honako hauek zehaztu beharko ditu:

a) Kartel eta banderatzokaren edukia eta neurriak.

b) Kokalekuak.

c) Zenbat denboran jarriko diren.

d) Halako elementuak kentzeko eta sortzen dituzten arazoak konpontzeko konpromisoa adieraztea.

4. Kartel-banderatzokak eskabideko eta baimeneko baldintzak bete beharko dituzte. Publizitateak ezingo du azalera osoaren %20 baino gehiago hartu.

5. Kartel eta banderatzokak kendu beharko dituzte baimenduriko epea amaitzeaz batera. Sustatzaileak hala jokatu ezean, udal zerbitzuek kenduko dituzte, baina gastua arduradunari izendatuko dizkio Udalak, baita arauak xedaturiko isunak jarri ere.

Ondorio berak edukiko du baimenik gabe jartzeak edo baimendutakoa ez betetzeak.

6. Artikulu honetako eta hurrengoetako xedapenak Donostiako Udalak berak eta gainerako erakunde eta organismo publikoek ere bete beharko dituzte.

44. artikulua. Eraikin bereziak.

1. Eraikin katalogatuetan, historiko-artistikoetan eta esanguratsuetan ez da inolako publizitaterik onartuko, eta ezingo da kartelik, banderatzorik edo errotulurik erakutsi; salbuespen izango direla eraikinaren ezaugarrien berri ematekoak, eraikineko jardueren berri ematekoak edo zaharberritzeko edo birgaitzeko lanen berri ematekoak.

2. Salbuespen gisa, aurreko idatz zatian aipatutako kasuetan sartuta ez dauden elementuak jarri ahalko dira eraikin horietan, baldin, aldez aurretik, jartzeko proposamena Udaleko Bozera maileen Batzordeari jakinarazi bazaio eta Bozera maileen Batzordeak gehiengoz onartu badu.

Edozein elementu jartzeko proposamena Udal Gobernuak edo beste edozein udal taldek egingo du, eta proposamenean adieraziko dira elementuaren ezaugarriak, neurriak eta zein alditan jarri asmo den.

* 2014ko Urtarrilaren 30eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 44. artikuluari 2. puntu bat gehitu zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/02/06/e1401067.htm>

45. artikulua. Pintadak eta graffitiak.

1. Debekaturik daude pintadak egitea bide publikoan, eraikin publiko edo pribatuetako fatxadetan, hiri altzarietan, zuhaiztetan, estatuetan, monumentuetan eta, oro har, hiriko paisaiaren edozein osagaitan.

2. Graffitiak eta marradurak ere debekaturik daude aurreko atalean adierazitako azaletan.

3. Salbuespen dira orube hesi, obra itxitura, tarteko horma eta antzekoetan pintaturiko muralak, aurretik udal baimena lortu eta baimeneko baldintzak betez gero.

4. Eraikin publiko batek edo hiri altzariren batek pintadak, kartelak, kristal marrak, kartel itsatsiak edo kaleta sortzen dion beste ezein elementu badu, Udalak enpresa edo pertsona arduradunari garbitzeko eta egokitzeko lanen faktura ordaintzeko eska diezaioke, baita arauzko isunak ezarri ere.

II. KAPITULUA. URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEA

46. artikulua. Espazio pribatuak garbitzea.

1. Urbanizazio pribatuetako espaloi, igarobide, galtzada, plaza eta lorategiak garbitu beharra jabeena da.

2. Jabea etxarte barruko patioak, orubeak, merkataritza galeriak eta abarrak garbitzera behartuta daude.

3. Udalak elementu pribatu horien guztien garbitasun egoera kontrolatuko eta ikuskatuko du, eta arduradunei haiek garbitzeko eskatuko die, hartarako udal zerbitzuek emandako jarraibideen arabera.

4. Merkataritza lokalen jabeek fatxadak egokitu beharko dituzte eraikinaren apaindura, zainketa eta ezaugarrien arabera, eraikuntzako ordenantzak gai horretaz xedatutakoan arabera.

47. artikulua. Orube eta lursail pribatuak.

1. Orube eta lursailen jabeek hondakinik eta zaborrik gabe edukiko dituzte, osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publikoaren baldintza egokietan. Gainera, enpresa baimendu bidez karraskariak eta intsektuak hiltzeko tratamenduak aplikatuko dizkiete.

2.Artikulu honetako lehen pasartean xedaturiko egoera gertatzen ez bada edo era nabarmenean jabeak egon ezean, Udalak halakoaren ordezkari ekingo dio, legezko mugakizunen arabera, neurri egokiak hartzeari, aurreko pasartean adierazitako helburuak lortzeko sail hartara sartzea ere izango duela, jabeari leporatuko dizkiola hala jokatu beharrak eragindako gastuak.

IV. TITULUA

ZIGORRAK

I. ATALA. Arau haustea

48. artikulua. Arauak haustea.

1.Administrazio lege haustea izango da Ordenantza honetako xedapenak eta ezartzen dituen debekuak haustea.

2.Ordenantza honek xedatutakoak hautsiz gero, Donostiako Gobernu Batzarrak ezarri beharko ditu zigorrak honako Titulu honetan araturikoaren arabera, legeek baimendurikoaren eta egoeren arabera izan daitezkeen erantzukizun zibil eta zigor bidezkoak ere kontuan.

49. artikulua. Lege hauste motak.

1.Arau haustea arinak, larriak eta larri-larriak izan daitezke, kontuan izanik asmoa, jokabidearen zibismo eza, utzikeri maila, pertsonen osasunerako eta segurtasunerako arriskua, eragindako kaltearen larritasuna eta lehenengo aldia ez izatea.

2.Horiek horrela, lehenengo aldia ez dela iritziko diote aurreko hamabi hilabeteotan zigorrak jaso badu zio bera dela bitarte behin edo gehiagotan.

3. Urratze arintzat joko da artikulua hauek haustea:

8.3., 12.2. (a, b, c salbu), 13.1, 2.,3. eta 4., 14.2. (c, e eta f salbu), 16, 19.1., 20.2., 21.2., 22, 25, 26, 28, 29, 30.1.,31, 33, 34, 41.1.

Jabari publikoko ondasunei egindako kalteek 10.000 euro baino gutxiago egiten badute, haustea arintzat hartuko da

* 2010eko ekainaren 25eko Udaltzako akordioaren ondorioz, 49.3. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2010/12/16/e1014263.htm>

4.Urratze larritzat joko da artikulua hauek haustea:

14.2. e) (obra materialak pilatzea soilik), 14.2. f), 15.1 eta 15.2, 35, 36, 37, 38, 39, 40.3, 40.4, 42.2, 43, 44, 45.2, 46 eta 47.

Jabari publikoko ondasunei egindako kalteek 10.000 euro baino gehiago eta 1.000.000 euro baino gutxiago egiten badute, haustea larritzat hartuko da.

Larritzat joko da agintaritzaren agenteek ordenatutako honetako xedapenak betetzeaz agintzen dutena ez betetzea, haustea zigor kodean jasotakoetakoak ez bada.

Gainera, hauste arina berriro egitea hauste larritzat joko da.

5.Urratze larri-larritzat hartuko da artikulua hauek haustea:

14.2. c), 14.2. e) (produktu toxikoak isurtzea soilik), 15.3, 19.4, 40.1 eta 45.1.

Jabari publikoko ondasunei egindako kalteek 1.000.000 euro baino gehiago egiten badute, haustea larri-larritzat hartuko da.

Gainera, hauste larria berriro egitea hauste larritzat joko da.

50. artikulua. Zigorrak.

1.Arau hauste arinek 50 eta 200 euro bitarteko isuna jasoko dute, larriek 201 eta 500 bitartekoa eta larri-larriek 501 eta 3.000 bitartekoa.

Zenbateko horiek aplikatuko dira sektorean sektoreko arauak xedatzen dituztenez gain.

2.Aurreko artikuluan xedatu ez diren eta honekin bat datozen bestelako ordenantza haustek, ez badute zigor moduan inolako kantitaterik zehazturik, 50 eta 200 euro arteko isuna izango dute.

3.Ezartzen diren isunez zain, jabari publikoaren ondasunei egindako kalteak eta eragindako ondorio txarrak ere ordaindu beharko dituzte, udal zerbitzu eskudunek kalteen zenbatekoa neurtu ondoren. Kalteen zenbatekoa nahitaez bete behar moduan xedatuko du zigorra ezartzeko eskumena duen organoak.

4.Arau hauste larri eta larri-larrietan tematuz gero, arau hausleari gaitasuna ken lekioko udal baimen eta emakiden onuradun izateko urtebetetik hiru urtera.

5.Ordenantza hau hausteko erabilitako tresnak, salgaiak eta materiala zein haustearen ondorioak bahitzeko eskua dute udaltzainek, indarreko arauak xedaturikoaren arabera.

51. artikulua. Borondatezko lana isunaren orde.

1.Isun ekonomikoen orde, beste aukera hauek ere erabil litezke: Kaltea konpontzea eta borondatezko lana egitea.

2.Hausleak sortutako kaltea konpondu badu borondatez eta zigor espedienteari ekin aurretik, aurretiazko informazio aldian eska dezake espedienteari ez ekiteko, Udala jakitun ez badago arau hausleak behin eta berriro jokabide gizabidearen aurkakoa izaten duenarena.

3.Hausteak beste herritarrei sortutako kalteak nola edo hala konpontzeagatik, arau hausleak eska dezake isunaren orde gainerako herritarren onurako borondatezko lanak egiteko, dela jokabide zibikoak sorraraztekoak, dela antzeko ekintzek sortutako kalteak konpontzekoak. Lanak borondatezkoak izango direnez gero, ez dira isuntzat joko.

II. ATALA. Erantzuleak

52. artikulua. Erantzuleak.

1.Ekintza publikoetan antolatzailea edo sustatzailea izango da erantzule.

2.Adin txikiko batek ordenantza honen xedapenak hausten baditu, erantzule izango dira gurasoak edo adin txikikoa zaintzen duten nagusiak.

3.Sustatzaileak eta kontratistak, biok-biotara, izango dute obrek bide publikoan eragindako zikinkeria kentzeko erantzukizuna, baita ibilgailuek zamalanetan edo obra sarrera-irteeretan sortutakoarena ere.

4.Ibilgailuaren jabea eta gidaria 27. eta 38.1. artikuluetan jasotako hausteen erantzule izango dira.

5.Animalien jabeak edo horien eramaileak izango dira animaliak sortzen dituen kalte, pertsonen eta gauzen gaineko afekzioen eta zikinkeria erantzule.

6.Kanpoko publizitateari dagokionez, erantzule iragarlea gertatuko da.

7.Gainerako baldintzetan erantzule izango da ordenantza honetan xedaturikoa hausten duen lagunak berak.

III. ATALA. Kaltea konpontzea eta berriro ere garbi uztea

53. artikulua. Kalteak konpontzea.

1.Hausleek sortutako kalteak beti konpondu beharko dituzte erantzuleek.

2.Udalak, arauzko zigor espedientea abiarazi ondoren eta behartuak ordaindu beharko duela, behar beste ekintza egingo du gauzak lehengo moduan uzteko, baita arauzko isunak jarri ere.

3.Udaltzaingoak aginduko du ordenantzak xedaturikoaren aurkako ekintzak bertatik bertara gerarazteko eta galarazi ere egingo dio agindua betetzen ez duenari ekinean irautea, baita isuna ezarri ere.

IV. ATALA. Prozedura

54. artikulua. Zigor prozedura.

1.Isunak ezarriko dira legezko jardunbidea edo gai horren gaineko zigor ahalmena erabiltzeko araudiek ezarritakoa erabilita.

2.Zigor prozedurari ekiteko ahalmena duen organoak, ekintzen jakitun denean, administrazio arau haustea ez ezik, zigor kodeko haustea ere izan litekeela iritziz gero, auzitegiko organo eskudunari jakinaraziko dio, hasitako zigor prozedura bertan behera utziko du auzitegi agintariak ebatzi arte.

Zigor prozedura bertan behera geldirik dagoen bitartean, haustea eta prozedura bera iraungitzeko epeak ere bertan behera geldituztat joko dira.

XEDAPEN INDAR KENTZAILE BAKARRA

Indargabe geratu dira ordenantza honek barne hartzen dituen alorrak arautzeko maila bereko edo txikiago araudiak baldin eta honen edukiaren aurka edo kontraesanean badoaz, batez ere honako hauek gelditu direla indargabe:

—Donostia Hiriko Udaltzaingo Ordenantzak, 1904.eko otsailaren 23koak.

—1967.eko Ordenantzak, Hiriko Garbikuntza-Apainduren eta Ongizate Publikoaren gainekoak.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera hartuko du indarra ordenantza honek.